

JAINKOAREN BENEDIKAPENA BAKARDADEAN

1. Beste metodoen baliotasuna ukatu gabe metodo induktiboaren bikaintasunean zentratuko naiz. Zientzia egiteko modu usua da raundu materialaren deskripzioetan oinarritzen dena. Hori hortara bada, orduan inguru materialaren ariketa deskriptiboak funtsezkoak dira egiaren bilatzaile baten formazioan. Eta hortik pinturaren mintzaira nireganatu egiten dut ohartu gabe, eta trazuak marrazten ditut nire ikerketen oinarri oinarrian. Baina nola mundu materiala igarotzea den nire deskripzioetatik ateratzen dudana ezagutza, hala nola gerraren ezagutza, nik ezin dezaket unibertsal bihurtu. Ez daukat eskubide logikorik indukzio perfektua izango litzatekeen hori bururatzeko, eta hortara nire deskripzioek partikularitateen berri ematen dute, partikularitate esistenzialak, baina ezin unibertsal bihurtu daitezke partikularitate horiek. Logika formalean, kuantifikatzaileen logikan zehazkiago, badaiteke sinbolizatu pauso horren ezina. Eta ezin hori absolutua da kosmos materiala da kosmos materiala infinituraino zabal daitekeelako, intelijentee-na da kontuan edukitzea ezusteak izan daitezkeela, salbuespenak erregularitaterik handienei ere agertzen ahal zaizkiela, eta hortik unibertsal ezin bihurtzea unibertso materialaren estudioan metodo induktiboa erabiliz.

2. Deskripzio hutsek osatzen dute historiaren zientzia, zeina baita zientzietan konpletoena. Idealki igarotako den dena bere barnean hartzen baitu. Eta deskripzioak definituak izan daitez-

ke: judizio sintetikoak a posteriori dira. Eta afirma daiteke ezen judizio sintetiko a posteriori oro ez dela zertan izan deskripzioa, baina, ostera, deskripzio oro beti esan daiteke judizio sintetiko a posteriori dela. Ondo errepresentatutako historia. Pintura. Errepresentazioa. Eta hortik deribatzen ahal den ezagutza partikularra da. Unibertso materialaren partikularitateen berri dugu metodo induktiboaren bitartez. Hala nola, borondatea unibertso honetako bizidunen partikularitatea da, ez da unibertsal bat.

3. Garbi dago ezen mundu materialaren ezagutzeko meixxio induktiboa erabiliz sekula ez gareia iristen judizio sintetikoak a priori egitera. Metodo induktiboaz ez baitugu iristen ezagutza unibertsala, eta soilik halako ezagutzarekin egiten ahal dira judizio sintetikoak a priori. Garbi dago ezen mundu material honen halako ezagutza edukitzeko beste mundu goragoko batean kokatu behar gareia. Zeren nik nire buruaren ezagutza unibertsala ez baitut edukitzerik. Beste perspektiba batetik dut halako ezagutza, edukitzerik baldin badago behintzat. Beste mundu batetik.

4. Eta ezagutza unibertsalak, definizioz, ez du ezer ignoratzen. Eta den dena ezagutzen duelako, infinituak sinbolizatzen duen oro ere, horregatik judizio sintetikoak a priori egiten ahal dira ezagutza horretatik. Eta inor baldin badago judizio sintetikoak a priori egin dituenik ezinago esplizituen hori Jesus Nazaretheko figura historikoa dugu. Ezer ignoratzen ez duen pertsona da. Inor ignoratzen ez duen pertsona. Baita bakardaririk larrienean daudenak ere ezagutzen ditu.

5. Eta nik sostengatzen dut honako tesia. Ezagutza unibertsalki zabaltzen denean ezagutza hori maitasunarekin parekatzten ahal da. Horregatik soilik pertsona batek du halako ezagutza unibertsala, Jainkoa, zeina baita on den bakarra. Besteok joera dugo, zalantza barik, halako ezagutzarako, baina iristen ez garenez onartu behar dugu gure inmoraltasuna.

6. Beraz, Jainkoa, zeinak, kondizionalaren moduan, ez baitu «inplikazio materialik», Jainkoa da bakarra ignoratua dagoena ezagutzen duena, maitatzen duena, benedikatzen duena. Benedikatu, hau da, ondo esan. Eta horrek dakar ondorioztatzea denera absolutuki iristen dela Haren ezagutza, infinituraino. Infinituaren inperfekzioa, zeina baita mundu eboluzionagarri honena, nabarmen osatzen duena.

7. Eta idea bat har dezagun Haren aintzaz azken gauza bat esango dut Haren ezagutzaz. Eboluzioaren teoria konprobatua dago. Eta eboluzioa infinitua izan daiteke. Baina infinituak inperfekzioa du, zeren edozein dela hartzen dugun zenbakia beti dago zenbaki handiagorik, eta hori berori gertatzen da eboluzioarekin, beti dagoela eboluzio unerik hobea denik, eboluzioa infinitua izaten ahal delako. Eta horregatik betiereko intzuleraren teoria «dekonstruitzeko» moduan aurkitzen gara, bertan behera erori egiten zaigu. Eta Jainkoak egiten ahal ditu judizio sintetikoak a priori, haren ezagutza unibertsala delako, beraz infinituaren inperfekzioa ere gainditu egiten du Jainkoak Bere jakituria inefablean, mundu material hau izanik, esan daiteke, Bere jakituriaren kasu bat. Nola ez du bada ezagutuko azken bakartia ere?, ez dago Haren izaeran inor ignoratzea, eta bai denak ezagutzea perfektuki.

Roman Garmendia